

2019. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2018ko urriaren 23an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2018/12/14. 240. zk.

ORDENANTZA FISKALA, HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DABEZAN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO ZORUAREN, ZORUPEAREN EDO LURGAINAREN BAKARREKO ERABILERAGAITIK EDO APROBETXAMENTU BEREZIAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua.—XEDAPEN OROKORRAK

1.-Udal honek, Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorruta, hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresei tasak ezarten eta ordainarazoten deusez udalerriko bideetako zoruaren, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabileraeragaitik edo aprobetxamentu bereziagaitik.

2.-Ondore horreetarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresatzat honako honek joko dira:

- a) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduen enpresak.
- b) Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak ematen dabean enpresak, beti be osorik edo zati batez erabilten badabez udalerriko bide publikoetako zorua, zorupea edo lurgaina, eta bakarreko erabilera edo aprobetxamentu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularra edozein izanda be.
- c) Hornidura zerbitzuak ematen dabean beste edozein enpresa, beti be zerbitzuak emoteko erabilten dauen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko zorua, lurgaina edo zorupea okupatzen badabe.

3.-Artikulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dabean enpresak be zerbitzuak ustiatzen dabean enpresen multzoan sartuko dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

3. artikulua.—EGITATE EZARGARRIA

1.- Egitate ezargaria honakoa da: hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresek udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamentu berezia egitea, zerbitzu horreek interes orokorrekoak badira, edo eragina badaukie udalerriko biztanle guztiengan edo gehiengan.

2.- Tasearen zenbatekoa ezarteko araubide hau aurreko artikuluan aitatutako enpresa guztiei aplikatuko jake, bai zerbitzuak egiteko erabilten dabean sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren sareak erabilteko, sareetan sartzeko edo hareekaz konektatzeko eskubideen titular direnei.

3.- Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasearen zenbatekoa ezarteko araubide berezi honetan.

4.- Tasa hau bateragarria da udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezarri leitekezan beste tasa batzuekatz, hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresak haren subjektu pasibo izan behar diranean 5/1998 Foru Arauaren 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tasa hau ordaintzen dauenak ez dau eukiko udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik.

4. artikulua.—SUBJEKTU PASIBOA

1.- Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikuluan aitatutako pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresen titularrak izan ezker, beti be zerbitzu horreek interes orokorrekoak badira edo udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan eragina badaukie, eta zerbitzua emateko udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiten bada.

1.- Artikulu honetan ezarritakoaren ondoreetarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dabean enpresak be zerbitzuak ustiatzen dabean enpresen multzoan sartuko dira.

5. artikulua.—HOBARIAK

Salbuespenak, eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emongo dira.

6. artikulua.—OINARRI EZARGARRIA

1.- Tasearen oinarri ezargarria kalkulatzeko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresek udal mugartean urtean egiten dabean fakturazinetik ataratako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.

2.- Sarrera gordinak izango dira enpreseari egotzi ahal jakozanak, udalerrian egindako zerbitzuen ordainez lortutakoak badira.

3.- Ez dira sarrera gordintzat joko zerbitzuen gaineko zeharkako zergak, ez eta gainontzekoen kontura kobratutako partidak edo kopuruak be, hornidura zerbitzua ustiatzen dauen enpresearen beraren sarrerak ez badira.

Era berean, ez dira sartuko fakturazioko sarrera gordinetan Ekonomia Ministerioaren Elektroenergia Ekoizteko Instalazioaren Administrazio Erregistroko 1. edo 2. atalean inskribatutako instalazioetan, araubide berezi honen arabera zerga-ordainketari lotuta dagoen energia sortzeko erabiliko den lehengai hornitzeagaitik jasotzen diren kopuruak.

4.- Zerbitzuak emoteko besteren sareak erabilten dabean enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dabez beste enpresa batzuei euren sareakaz konektatzeagaitik edo hareetan sartzeagaitik ordaindutako kopuruak. Halako sareen titular diran enpresek horregaitik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin moduan konputatu behar dabez.

5.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 112. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapenari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sareen titular diran enpresek udalari informazioa emon beharko deutse, udalak eskatu ezker; sareetan sartzeagaitik edo konektatzeagaitik ordaintzen deutseen enpresena, hain zuzen be.

7. artikulua.—KUOTEA

1.- Tasaren kuota %1,5koa izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko jake.

2.- Aprobetxamentu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar beragaz, onuradunak hareek berreraikitze edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko dau eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko dau. Horrezaz gainera tasea ordaindu beharko dau.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordaina jasoko dau. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari jagokona izango da. Udalak ezin ditu parkatu idatz-zati honetan adierazotako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.

8. artikulua.—SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

1.- Hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresek udalerriko bide publikoetako zoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragaitik edo aprobetxamentu bereziagaitik ordaindu beharreko tasea aprobetxamentu berezia hasten danean sortuko da lehenengoz, eta geroztik urtero sortuko da, urtarrilaren 1ean.

2.- Subjektu pasiboari egotzi ezin jakozan arrazoiengaitik jabari publikoaren aprobetxamentua ezin baliatu edo garatu bada, tasearen zenbatekoa itzuli egingo da.

9. artikulua.—LIKIDAZINOA ETA SARREREA

Udalak kitapena egingo dau, eta kitatutako zenbatekoaren sarrerea egingo da.

10. artikulua.—TASEAREN KUDEAKETEA

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresek, hiru hilean behin, egutegiko hiruhilekoaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan izandako sarrera gordinen aitorpena aurkeztu beharko deutse udalari. Aitorpen horrekin batera, udalerrian eginiko fakturazioa egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dabez, eta udal Administrazioak eskatzen deutsezan gainerako agiriak.

11. artikulua

1.- Udal Administrazioak hiru hilean behingo kitapenak egingo ditu. Behar diran egiaztapenak egin arte kitapenak behinbehinekoak izango dira. Egiaztapenak amaituta, behin betiko kitapena egingo da eta interesdunari jakinarazoko jako. Borondatezko epean ordaindu ezean, zorra premiamendu bidez ordainarazoko da.

2.- Behin-behineko kitapena, edozelan be, behin betikoa bihurtuko da aurreko artikuluan aitaturako aitorpena aurkezten dan egunetik hiru urte igarotakoan.

3.- Udalaren eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresen artean hitzarmen edo akordioaren bat badago, artikulua honetan eta aurrekoan kudeaketeari buruz ezarritako arauak ordeztukoak izango dira.

12. artikulua

Zergen arloko arau-hausteak, hareen sailkapena eta jagokezan zehapenak dirala-eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedaturakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENA

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dabean enpresek Udalerriko Bide Publikoetako Zoruaren, Zorupearen eta Lurgainaren bakarreko erabileragaitik edo Aprobetxamentu bereziagaitik ordaindu beharreko Tasea arautzen dauen Udal Ordenantza Fiskala jendaurreko aldian inork ez dau erreklamaziorik aurkeztu eta horrenbestez behin betiko onetsizat jo behar da; 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta holan iraungo dau harik eta bera aldatu edo indargabetzea erabagiten dan arte.